



Jarduera Memoria 2019

Jarduera Fisikoaren eta
Kirolaren Zuzendaritza

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Jarduera Memoria 2019

Jarduera Fisikoaren eta
Kirolaren Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2020

Argitaraldia: 1.a, 2020ko iraila · **Ale-kopurua:** 100 ale · © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza) · **Internet:** euskadi.eus · **Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco (Donostia-San Sebastian kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) · **Diseinua eta maketazioa:** TheNiu · **Inprimatzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua · **Lege Gordailua:** LG G 00553-2020

Oharra: lan honen erregistro bibliografiko bat Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan kontsulta daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>.

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

1	Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren aurkezpena
2	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
3	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza
3.1.	Egitura
	3.1.1. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza
	3.1.2. Kirol Zerbitzua - Lakua
	3.1.3. Kirol Zerbitzua - Fadura - Basque Team Zentroa
3.2.	Organo kolegiatuak
3.3.	Beste erakunde batzuk
4	Aurrekontua
5	Proiektu nagusiak
5.1.	Kirol ereduaren inguruko gogoeta bultzatzea
5.2.	Euskadi gizarte aktiboagoa izan dadin lan egitea
5.3.	Kirol klubei eta federazioei buruzko gogoeta eragitea
5.4.	Goi mailako euskal kirola indartzea
5.5.	Tolerantziarik ez dopinarekin
5.6.	Jarduera fisikoaren eta kirolaren sektorearen profesionalizazioa indartzea
5.7.	Benetako berdintasuna lortzea
5.8.	Kirol egokituari aukera berriak ematea
5.9.	Gure kirol autoktonoak babestea
5.10.	Kirolean euskarari bideak irekitzea, batez ere gazteen artean
5.11.	Euskal selekzioen eta horien kanpo proiektzioaren aldeko politika bultzatzea
6	Dirulaguntzak
6.1.	Urteko dirulaguntzen deialdia
6.2.	Dirulaguntza izendunak
6.3.	Zuzeneko dirulaguntzak
6.4.	Basque Team dirulaguntzak

1.

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUAREN AURKEZPENA

Herritarrekin sinatutako akordioa zintzo betetzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak bere Gobernu Programaren jarraipen zorrotza eta etengabekoa egiten du. Helburua da Legealdiaren hasieran hartutako konpromisoak betetzea, *pacta sun servanda* printzipio greziarrarekin bat eginez: hitzartutakoa bete egin behar da. Hala, Administrazioaren jardueraren inguruan gorabehera ugari gertatzen diren arren, 2016-2020 Legegintzaldiaren amaierak ematen dizun perspektibatik esan daiteke betetze-maila oso handia izan dela.

Planteamendu zorrotz horrek Eusko Jaurlaritzako estamentu guztiei eragiten die, eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza ez da salbuespena. Agintaldiaren hasieran esandakoa bete ahal izateko, Eusko Jaurlaritzak politika publiko zehatz eta doituak garatu behar ditu, eta horrek nolabaiteko konplexutasuna dakar. Ondorioz, ahalegin hori guztia ikusteko zaila gertatzen da herritar gehientzat. Dokumentu honen bidez, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak 2019. urtean garatutako proiektu eta jarduera guztiak bildu eta horien berri eman nahi du. Beraz, gardentasun-ariketa bat egin nahi du, ezagutzera emanez zer egin duen Agintaldiaren hasieran hitzartutakoa betetzeko. Zehaztasun osoz.

Dokumentu honetan jasotako ekimenak, dirulaguntza lerroak edota laguntza izendunak, jakina, bat datoz Zuzendaritzaren helburu nagusiekin: Jarduera fisikoa bultzatzea eta sedentarisismoari aurre egitea, goi-mailako euskal kirola babestea, euskal federazioei laguntzea, kirolean berdintasuna bultzatzea, kirolaren bidez Euskadi-Basque Country nazioartekotzea edota dopinaren aurkako borroka.

Memoria hau, gainera, gure herria kudeatzeko modu partekatuaren adibide da, kasu honetan jarduera fisikoari eta kirolari dagokienez. Euskadiko antolamendu instituzional bereziaren ondorioz, eta kirola eskumen partekatua izanik, udalak, aldundiak eta Eusko Jaurlaritza dira arlo hau kudeatzeko arduradunak. Erakunde bakoitzak eskumenez dagozkion eginkizunak betetzen ditu, baina administrazioek ahalegina egiten dute beren politikak koordinatzeko eta osagarri gerta daitezen. Era berean, Euskadin bultzatutako kudeaketa-ereduak eragile ugariaren lankidetzara eskatzen du: kirolariak, federazioak, kirol-lehiaketak antolatzen dituzten erakundeak, enpresa pribatuak, klubak... Auzolanaren filosofiaren adibide on bat da.

Memoria honek eskatzen duen gardentasun-ariketa egiteko unea bat etorri da Covid-19aren pandemiaren ez tandarekin. Eta egoera dramatiko honek, samina eragiteaz gain, hankaz gora jarri du gure herria. Une honetan zaila da neurtzen zeintzuk izango diren ondorioak. Seguruena, hamarkadetan eraikitako zenbait ekimen berreraiki behar dira. Azken hamarkadetako esperientziak, ordea, erakutsi digu modu partekatuan lan eginez eta herritarrekin bat eginez aurrera egingo dugula.

Bingen Zupiria Gorostidi

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua

2.

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren berrantolaketa jasotzen zuen azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan oinarrituta, **apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen.**

24/2016 Dekretuaren arabera, honako jardun-arlo hauek dagozkie: hizkuntza-politika garatzea, euskararen erabilera sustatzea, museoak, liburutegiak eta artxiboak kudeatzea, ondare historiko artistikoa kudeatzea eta babestea, eta jarduera artistikoak eta kulturalak sustatzea eta zabaltzea; kirol-arloari dagokiona kudeatzea eta zabaltzea; gizarte-komunikabideei dagokienez, irrati-enakida eta irrati-frekuentzien esleitzea; sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sozietate publikoak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.

Zeregin horiei erantzun ahal izateko, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren **egitura** osatzen duten organo nagusiak zeintzuk diren ezartzen du 82/2017 Dekretuak: Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua (horren mende daude Kabinetearen eta Gizarte Gaietarako Baliabideen Zuzendaritza, Zerbitzu Zuzendaritza eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza); Kultura Sailburuordetza (Kultura Ondarearen Zuzendaritza eta Kultura Sustatzeko Zuzendaritza barne) eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (horren mende daude herri administrazioetako Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza, Euskara Sustatzeko Zuzendaritza eta Hizkuntza Ikerketa eta Koordinazio Zuzendaritza).



3.

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZA

3.1. EGITURA | 3.2. ORGANO KOLEGIATUAK | 3.3. BESTE ERAKUNDE BATZUK

3.1. Egitura

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari agindutako eginkizunak bete ahal izateko, honako zerbitzu hauek ditu bere mende:

- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza
- Kirol Zerbitzua - Lakua
- Kirol Zerbitzua - Fadura - Basque Team Zentroa

3.1.1. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza

JON REDONDO LERTXUNDI

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARIA

ITZIAR LATORRE AGUILLO

IDAZKARIA

ELISABET ALTUBE BENGOA

ZERBITZUBURUA

Hauek dira, besteak beste, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren **eginkizunak**:

- Beharrianak aztertzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagozkion arauzko neurriak proposatzea, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoaren arabera.
- Era guztietako kirol elkarten sorrera bultzatzea.
- Kirol federazioei laguntzea eta landaketan jardutea beren egitekoak indarreko arauen arabera bete ditzaten, baita Estatuko, Europako eta Europaz gaindiko erakundeekin eta entitateekin elkarlanean aritzea ere, kirolaren gaian guztien interesekoak diren jardueretan.
- Jarduera fisikoari eta kirolari dagozkion kirol politika integralak garatzea, erakunde arteko eta sail arteko lantaldeak koordinatuta.
- Kirolaren inguruko informazioa eta dokumentazioa bildu eta hedatzea, baita horren gainean egoki irizitako ikerketa eta azterketa guztiak egin eta sustatzea ere.
- Jarduera fisikoari eta kirol jarduerari loturiko zientzia eta teknika-ikerketak bultzatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuan, goi mailako kirol jarduerak sustatu eta koordinatzea.
- Bertako kirolak sustatzea eta horiei laguntza ematea.
- Euskal kirolaren presentzia Estatuan eta nazioarteko eremuan ziurtatzeko neurriak ezartzea.
- Erkidego mailako eskola-lehiaketak antolatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko kirol instalazioen sarea planifikatu eta bultzatzea, kirola eta aktibitate fisikoa egiteko.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroa zuzendu eta kudeatzea.
- Indarreko legeek esleitzen dizkionten ikuskapen-egitekoak betetzea, eta, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen eta Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legearen arloan, Eusko Jaurlaritzari dagozkion zehapen-espeditenteak instruitzea.



3.1.2.

Kirol Zerbitzua - Lakua

IKER UGARTE TUTOR

AMAYA GEZALA ORTIZ

ROSA DIAGO BARCENILLA

AHOLKULARITZA JURIDIKO, DIRULAGUNTZA ETA KONTRATAZIO ARLOA

JOSE LUIS JORGE TOTRIKA

KONTABILITATE ETA FAKTURAZIO ARLOA

JOSEBA BUJANDA BUJANDA

ESKOLA KIROL ETA KIROL BERDINTASUN ARLOA

MIKEL BRINGAS DIEZ

MUGIMENT PROIEKTUA

MAIKA CALVENTE GARCÍA

KIROL ERAKUNDEEN ERREGISTROA

LANDER FERNANDEZ TUEROS

ADMINISTRAZIO-LAGUNTZAILEA

3.1.3.

Kirol Zerbitzua - Fadura Basque Team Zentroa

MAR GARCIA PALACIOS

IDOIA ESKURZA GARCIA

USUE ZATIKA ELORZA

AITOR ALBERDI RODRIGUEZ

JULEN ERAUZKIN BARRENETXEA

HOBEKUNTZA TEKNIKORAKO ZENTROA (GOI MAILAKO ZERBITZUA)



XABIER LEIBAR MENDARTE

OSASUN ZERBITZUA

ANDONI URRUTIA BASTERRETXEA

M^a VICTORIA VALLEJO CABREJAS

ADMINISTRAZIO ARLOA

JON IRIBERRI BERROSTEGIETA

EDURNE ABRISKETA BASTERRA

KIROLAREN EUSKAL ESKOLA



JOSU AYO ELORRIAGA

DOPINAREN AURKAKO EUSKAL AGENTZIA



3.2. Organo kolegiatuak

KIROLAREN EUSKAL KONTSEILUA



KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEA



KIROLEKO INDARKERIAREN AURKAKO BATZORDEA (KIROLALDE)



ESKOLAKO KIROLAREN EUSKAL BATZORDEA



3.3. Beste erakunde batzuk

BASQUE TEAM FUNDAZIOA

Basque Team Fundazioak, Faturako Basque Team Zentroan du egoitza, eta erregimen juridiko pribatua duen fundazioa da; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legeak arautzen du, eta horren interes orokorreko helburuak dira euskal kirolaren goi mailako garapen egokia bultzatzea, nazioarteko goi mailako kirol-lehiaketetan ordezkari izan dezaten, eta, batez ere, goi mailako kirol-ekitaldietan, bai eta euskal kirolariek aipatutako lehiaketetan goi mailako emaitzak lor ditzaten.

OLATZ LEGARZA ALBIZURI

BASQUE TEAM-EKO KOORDINATZAILEA

ELENA ETXEBARRIETA ARANA

KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

MARIA PÉREZ CÓRDOBA

ADMINISTRAZIO ARDURADUNA



4.

AURREKONTUA

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren 2019ko aurrekontuaren exekuzioaren xehetasunak (2018ko aurrekontuaren luzapena).

ZUZENDARITZAKO
LANGILEEN ETA
FUNTZIONAMENDU GASTUAK

2.680.188 €

FEDERAZIOEN
DIRULAGUNTZAK

3.313.800 €

NAZIOARTEKO EKITALDIAK
ANTOLATZEKO ETA
NAZIOARTEKO EKITALDIETAN
PARTE HARTZEKO
DIRULAGUNTZAK ETA
LAGUNTZAK

921.461 €

MUGIMENT PROGRAMA
ETA MUGIMENT
KIROLTXARTELERAKO
DIRULAGUNTZAK ETA
LAGUNTZAK

190.000 €

KIROL ERAKUNDEENTZAKO
BESTE DIRULAGUNTZA ETA
LAGUNTZA BATZUK

275.284 €

AZPIEGITURETARAKO
DIRULAGUNTZAK

4.300.000 €

BASQUE TEAM-EN
AURREKONTUA

1.994.494 €

5.

PROIEKTU NAGUSIAK

5.1. KIROL EREDUAREN INGURUKO GOGOETA BULTZATZEA | 5.2. EUSKADI GIZARTE AKTIBOAGOA IZAN DADIN LAN EGITEA | 5.3. KIROL KLUBEI ETA FEDERAZIOEI BURUZKO GOGOETA ERAGITEA | 5.4. GOI MAILAKO EUSKAL KIROLA INDARTZEA | 5.5. TOLERANTZIARIK EZ DOPINAREKIN | 5.6. KIROL JARDUERAREN ETA KIROLAREN SEKTOREAREN PROFESIONALITASUNA INDARTZEA | 5.7. BENETAKO BERDINTASUNA LORTZEA | 5.8. KIROL EGOKITUARI AUKERA BERRIAK EMATEA | 5.9. GURE KIROL AUTOK-
TONOAK BABESTEIA | 5.10. KIROLEAN EUSKARARI BIDEAK IREKITZEA, BATEZ ERE GAZTEEN ARTEAN | 5.11. EUSKAL SELEKZIOEN
ETA KANPO PROIEKZIOAREN ALDEKO POLITIKA BULTZATZEA

Jarraian, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren konpromiso eta proiektu nagusiak bildu ditugu, baina, aurretik, kirolaren inguruko hausnarketa hau egin nahi dugu: guretzat kirola ez da aisialdira mugatzen den jarduera fisiko bat, ezta lehiaketari soilik lotutako kirol ariketa ere. Gure iritziz, kirolak gizartearen esparru garrantzitsuak hartzen ditu, eta balio sozial guztiz zeharkakoa da.

Gauzak horrela, Zuzendaritzaren izen aldaketa jorratu zen, eta Kirol Zuzendaritza izena edukitzetik Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza izena edukitzera pasa da.

Gure ustez, jarduera fisikoa eta kirola ezinbestekoak dira gazteen heziketarako. Jarduera fisikoa eta kirola egiten duen pertsona orok badaki zer diren diziplina eta eguneroko lana, bai eta taldean jarduteko erantzukizuna izatea ere. Gainera, kirolaren bidez norberaren burua zaintzeko ohiturak hartzen dira.

Jarduera fisikoa eta kirola gizareratze-tresna oso egokiak dira, era berean. Horien bidez, kanpoko pertsonen talde edo komunitate bateko kide izateko aukera ematen zaie, eta gure herrira iritsitako pertsona askori integrazioarako sarbide bikaina eman diezaiakete.

Jarduera fisikoak eta kirolak gure ongizatearen alde egiten dute, eta gure bizi-kalitatearen eta gure osasunaren oinarri dira. Gaur egungo gizarteak eta aurrerapen teknologikoek, bereziki, jarduera fisikorik eza eta sedentarismoa eragiten dituzte. Une honetan, laugarren hilkortasun faktorea dira mundu mailan, eta horregatik hartu behar dira kontuan. Gizarte aktiboa, hau da, jarduera fisikoa egiten duen gizartea, sedentarismotik urrun dagoena, ezinbestekoa da gure ongizate-mailari eusteko. Horrek gizarte zoriontsuago, produktiboago eta osasuntsuago bat ekarriko du, eta, jakina, jasangarriago egingo ditu gure ongizate-mailak osasun-arloan dakartzan kostuak.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren helburua izan da jarduera fisikoaren eta kirolaren eredu bat finkatzea, gure gizartearen nahietara egokitutako eredu aitzindaria, kalitatearen erreferente dena.

Hona hemen hori lortzeko egin diren proiektu nagusietako batzuk:

5. PROIEKTU NAGUSIAK
 5.1. KIROL EREDUAREN INGURUKO GOGOETA BULTZATZEA | 5.2. EUSKADI GIZARTE AKTIBOAGOA IZAN DADIN LAN EGITEA | 5.3. KIROL KLUBEI ETA FEDERAZIOEI BURUZKO GOGOETA ERAGITEA | 5.4. GOI MAILAKO EUSKAL KIROLA INDARTZEA | 5.5. TOLERANTZIARIK EZ DOPINAREKIN | 5.6. KIROL JARDUERAREN ETA KIROLAREN SEKTOREAREN PROFESIONALITASUNA INDARTZEA | 5.7. BENETAKO BERTINTASUNA LORTZEA | 5.8. KIROL EGOKITUARI AUKERA BERRIAK EMATEA | 5.9. GURE KIROL AUTOKTONOAK BABESTEIA | 5.10. KIROLEAN EUSKARARI BIDEAK IREKITZEA, BATEZ ERE GAZTEEN ARTEAN | 5.11. EUSKAL SELEKZIOEN ETA KANPO PROIEKZIOAREN ALDEKO POLITIKA BULTZATZEA

5.1. Kirol ereduaren inguruko gogoeta bultzatzea

Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko erreferentziazko gizarte-eragileekin batera, etorkizunerako nahi dugun ereduari buruzko gogoeta egin nahi izan dugu, ziur baikaude oinarri sendo batzuk finkatu behar ditugula, etorkizuna emankorra izan dadin.

Hausnarketa horrek gaur egun indarrean dagoen Kirolaren 14/1998 Legea eguneratzea izan du ardatz. 2019an, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Legearen Aurreproiektua izaipidetzeari ekin zaio, lege berria gartzeko eta onartzeko alde aurreko urratsa baita.

5.2. Euskadi gizarte aktiboagoa izan dadin lan egitea

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren erronka nagusietako bat gizarte aktiboagoa lortzea da. Gure gizartean gertatzen ari diren aldaketek jarduera ezara eta sedentariasmora garamatzate, eta hori saihestu behar dugu. Horregatik, ezinbestekoa da Euskadi gizarte aktiboagoa eta osasungarriagoa izateko politikak abian jartzea.

Helburu hori lortzeko, X. legegintzaldian Eusko Jaurlaritzako hainbat saillek batera lan egin zuten Mugiment 2020 proiektua abian jartzeko. XI. legegintzaldian, indartu eta aurrera eraman dugu plan hori, udalekin eta foru-aldundiekin batera; gainera, kirol-txartel bakarra jarri dugu martxan, Mugiment kirol-txartela (<https://kirol-txartela.eus/es>). Hala, 2019an Mugiment proiektua gauzatzen jarraitu da, 84 sustatzaile biltzen dituen; tokiko 29 saretan eta 30 orientazio-zerbitzutan parte hartu da, eta, gainera, dirulaguntzen beste deialdi bat eskaini da pertsona ez-aktiboak ez-aktibo izateari uztera bideratutako jarduera fisikoak antolatzeko (Mugiment Deialdia); 32 eskabide aurkeztu ziren, proiektuak Balorazio Batzordeak baloratu zituen, eta tokiko 24 erakunderi eman zaie dirulaguntza.

Gizarte aktiboagoa sustatzeko nahiarekin, ondorengo ekintza hauek egin dira:

- Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen 38. edizioa antolatu da Bizkaian. 2.474 kirolarik parte hartuz: 1.462 mutilek eta 1.012 neskak.
- Eskola Kirolaren Euskal Batzordea dinamizatu da eta bitan bildu da.
- Deustuko Unibertsitatearekin batera, Euskadiko Unibertsitate Kiroleko 2019ko Txapelketak antolatu dira, Donostian.

5.3.

Kirol klubei eta federazioei buruzko gogoeta bultzatzea

Gure kirol sozietate eta federazioen egungo egituren inguruko gogoeta egin behar dugu. Gure federazio-sistema XXI. mendera egokitu behar dugu, eta sistema horrek gizarteak eskatzen dituen erronkei erantzun behar die. Sistema eraginkorragoa behar dugu, baliabideak kirol maila hobetzera bideratuko dituenak. Era berean, dauden lehiaketen egituren inguruan ere egin behar dugu lan, euskal kiroletan lehiaketa-esparruak garatzeko, gizartearentzat erakargarriak eta iraunkorrak izan daitezen, gure egoera sozioekonomikoa kon-tuan hartuta. Horretan lan egin dugu Traineruen TKE Liga, Jai Alai World Tour edo Euro Basque Rugby Challenge bezalako proiektuak indartuz.

5. PROIEKTU NAGUSIAK

5.1. KIROL EREDUAREN INGURUKO GOGOETA BULTZATZEA | 5.2. EUSKADI GIZARTE AKTIBOAGOIA IZAN DADIN LAN EGITEA | 5.3. KIROL KLUBEI ETA FEDERAZIOEI BURUZKO GOGOETA ERAGITEA | 5.4. GOI MAILAKO EUSKAL KIROLA INDARTZEA | 5.5. TOLERANTZIARIK EZ DOPINAREKIN | 5.6. KIROL JARDUERAREN ETA KIROLAREN SEKTOREAREN PROFESIONALITASUNA INDARTZEA | 5.7. BENETAKO BERTINTASUNA LORTZEA | 5.8. KIROL EGOKITUARI AUKERA BERRIAK EMATEA | 5.9. GURE KIROL AUTOKTONOAK BABESTEIA | 5.10. KIROLEAN EUSKARARI BIDEAK IREKITZEA, BATEZ ERE GAZTEEN ARTEAN | 5.11. EUSKAL SELEKZIOEN ETA KANPO PROIEKZIOAREN ALDEKO POLITIKA BULTZATZEA

Gainera, dirulaguntza eman zaio Euskal Kirol Federazioen Batasunari, euskal federazioak berrantolatze eta optimizatzeko, bai eta euskal selekzioak sustatzeko eta kanpora zabaltzeko ere.

Bestalde, 47 euskal federaziok laguntzak jaso dituzte beren urteko programetarako. Aipatu behar da laguntza ekonomikoak eman zaizkiela eskabidea aurkeztu duten federazio guztiei, haien kirol-proiektuak Kalifikazio Batzordeak baloratu ondoren.

5.4. Goi mailako euskal kirola indartzea

Gure helburua goi mailako euskal kirola indartzea da, hau da, Basque Team indartzea Euskadiko goi mailako kirolarien erreferente gisa, eta, horretarako, ezinbestekoa da hainbat eragileren arteko koordinazioa.

Kirolariei, entrenatzaileei eta epaileei eskaintzen zaizkien bekak eta zerbitzuak hobetzen eta zabaltzen lan egiten dugu; alde horretatik, jasotako eskaerak aztertu dira 2019an, eta 67 kirolari, 7 teknikari eta bi epaile kalifikatu eta goi mailako aitortu dira (zerrendak bitan argitaratu dira). Goi mailako kirolerako laguntzak Basque Team Fundazioaren bidez bideratzen dira, eta fundazio horren memorian jasota daude.

Era berean, foru aldundien lankidetzarekin, kirolari talentudunei eta promesei laguntzen diegu, laguntzen bidez eta eliterako bidean egiten duten aurrerapenaren jarraipena eginez. 2019an 28 kirolari identifikatu dira promesa gisa: 15 gizon eta 13 emakume.

EAEko hiru foru aldundien lankidetzarekin kirol teknifikazioko proiektuak garatzeari eta goi mailako teknologia-zentroen euskal sarea sortzeari begira, Fadurako Hobekuntza Teknikorako Zentroko teknikarien eta euskal kirol-federazioen arteko koordinazio-lanarekin jarraitu da.

Gainera, 25 erakunderi eman zaie dirulaguntza nazioarteko lehiaketa ofizialetan kategoría absolutuan parte hartzea finantzatzeko, eta beste 4 erakunderi, berriz, Estatuko kategoría goreneko emakumezkoen ligetan emakumezko euskal kirolarien parte-hartzea finantzatzeko; izan ere, emaitzak baldintzatzen du nazioarteko ekitaldietan parte hartzea.

Bestalde, goi mailako nazioarteko 33 ekitaldi antolatze eta dirulaguntzak eman dira.

5.5. Tolerantziarik ez dopinarekin

Gure helburua da dopinarekin tolerantziarik ez edukitzea. X. legegintzaldian, Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia jarri genuen martxan, eta, ondoren, agentzia horren lana indartu da, laginketa-kopurua handituta eta lehiaketatik kanpo egiten direnak indartuta. Gure agentzia erreferente izatea lortzeko asmoz, 2018an dopinaren aurkako gure Legea Dopinaren Aurkako Munduko Agentziaren indarreko kode berrira egokitu genuen.

1/2018 Legea, ekainaren 7koa, Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzen duena. 3051. 2018-06-13ko EHAA, 113. zk



2019an, Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak kiroleko dopinaren aurkako borrokan jarraitu du, eta Dopinaren Aurkako Munduko Agentzian sartzeko kudeaketak egin ditu, Euskadi arlo horretan erreferente bihurtzeko azken urratsa baita.

Kirol federazioen lankidetzarekin, Kiroleko Dopinaren Aurkako Programa garatu da, eta 312 kontrol egin zaizkie pertsoneri, eta 7, berriz, animaliei.

5.6. Jarduera fisikoaren eta kirolaren sektorearen profesionalizazioa indartzea

XI. legegintzaldian ezarritako beste helburu bat da jarduera fisikoaren eta kirolaren sektorekoak diren pertsonak kualifikatzea, eta, oro har, kirol arloko profesionalizazioa indartzea, sektore horretan lan egiten duten milaka pertsonen baldintza duinak izan ditzaitez, gainerako sektoreetan bezala. Bi ardatz horien bidez, gure kirol sistemaren kalitatea hobetu nahi dugu.

Kirolaren Euskal Eskolak kirol arloko prestakuntza-eginkizunari eutsi dio 2019an, eta 13 prestakuntza-jardura antolatu ditu (594 parte-hartzaile: 448 gizon eta 146 emakume); kirol federazioek sustatutako entrenatzaileentzako 19 ikastaro baimendu eta gainbegiratu ditu, eta prestakuntza-jarduerak eta prestakuntza-dokumentu eta albisteak zabaldu ditu, komunikazio-kanal desberdinen bidez (informazio-buletina, web orria, sare sozialak); horrekin batera, aholkulari-funtzioa egin du Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-erakunde eta eragileekin.

Arauen arloan, Eusko Legebiltzarrak Kiroleko Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzko Lege berria noiz onartuko zain gaude.

5. PROIEKTU NAGUSIAK

5.1. KIROL EREDUAREN INGURUKO GOGOETA BULTZATZEA | 5.2. EUSKADI GIZARTE AKTIBOAGOA IZAN DADIN LAN EGITEA | 5.3. KIROL KLUBEI ETA FEDERAZIOEI BURUZKO GOGOETA ERAGITEA | 5.4. GOI MAILAKO EUSKAL KIROLA INDARTZEA | 5.5. TOLERANTZIARIK EZ DOPINAREKIN | 5.6. KIROL JARDUERAREN ETA KIROLAREN SEKTOREAREN PROFESIONALITASUNA INDARTZEA | 5.7. BENETAKO BERDINTASUNA LORTZEA | 5.8. KIROL EGOKITUARI AUKERA BERRIAK EMATEA | 5.9. GURE KIROL AUTOKTONOAK BABESTEIA | 5.10. KIROLEAN EUSKARARI BIDEAK IREKITZEA, BATEZ ERE GAZTEEN ARTEAN | 5.11. EUSKAL SELEKZIOEN ETA KANPO PROIEKZIOAREN ALDEKO POLITIKA BULTZATZEA

5.7. Benetako berdintasuna lortzea

Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan dugun beste erronka bat benetako berdintasuna lortzea da. Egia da azken urteotan egoera hobetzen ari dela eta oso altua dela emakumezko kirolarien presentzia, baita haien maila ere, eskura ditugun datuek erakusten duten bezala. 2012ko eta 2016ko Olinpiar Jokoetan Euskadiko kirolariek lortutako domina guztiak emakumezkoenak izan ziren, eta 2019an Basque Teamera iritsi ziren goi mailako kirolarien ia erdiak emakumezkoak dira.

Lan handia egin behar da, oraindik, ordea, komunikabideetan, kudeaketa-esparruetan edo federazioetan emakume kirolarien presentzia urria baita oraindik. Beraz, lanean jarraitu behar dugu, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan benetako berdintasun hori lehenbailehen lortzeko.

2019an, Genero-ikuspegia 2017-2020 sartzeko estrategia ezarri da Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarako, 2017an diseinatutakoa.

Kirolean gizon-emakumeen arteko berdintasun arloan espezializatutako hainbat forotan parte hartu dugu, txostenak aurkeztuz eta informazioa trukatzuz.

Zuzendaritzako langileentzako pres-takuntza-ekintzak diseinatu eta garatu dira generoaren eta kirolaren arloan, ikuspegi hori gure eguneroko lanean errazago txertatzeko.

Kirol arloan sexu-abusu eta jazarpenaren, eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurrean informatzeko eta arreta emateko zerbitzu espezializatu eskaintzen jarraitu dugu, *Zure taldekoak gara*, telefonoz eta idatziz informazioa eta aholkularitza emanez, hala eskatuz gero eta formazio saioak eskainiz eskoletan.

Zure taldekoak gara



Emakunderen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzarekin, *Berdintasuna eta Kirola Jardunaldia, kirola ahalduz gune bezala* topaketa egin zen 2019ko azaroan. Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitzan izan zen, Donostian.

5.8. Kirol egokituari aukera berriak ematea

Jarduera fisikoaren eta kirolaren barruan, kirol egokituari lotutako erronka bat ere badago. Goi mailako kirol egokituari dagokionez, emaitza onak lortu ditugu (adibidez, bi domina lortu genituen 2016ko Paralinpiar Jokoetan), baina egia da, halaber, azken urteetako bilakaera negatiboa dela, eta, beraz, beharrezkoa dela joera hori aldatzea.

Goi mailako kirol egokitua alde batera utzita, gizarteak beste erronka bati egin behar dio aurre: dibertsitate funtzionala duten pertsonen jarduera fisikoa eta kirola ahalik eta modurik egokienean eta normalizatuenean egin dezaten ahalbidetzea. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen jarduera fisikoan eta kirolean ere lagundu behar diegu, eta, horretarako, 2019an Kirol Egokituaren Euskal Plana lantzen jarraitu dugu, hainbat eragilerekin eta Kirol Egokituen Euskal Federazioarekin batera, eta diruz lagundu dugu GaituzSport proiektua.

5.9. Gure kirol autoktonoak babestea

Gure kirolak babestu behar ditugu, gure kulturaren parte diren heinean. Guk egiten ez badugu, inor ez zaigu laguntzera etorriko. Beraz, gure kirol autoktonoei dagokienez, ezinbestekoa zen beste erakunde bartzuen lankidetzarekin Pilota, Arraun eta Herri Kirolen Plan Estrategikoak ezartzea, haien etorkizuna bermatuko duten politikak garatzeko eta beharrezko laguntza bideratzeko. 2019an, plan estrategiko horiek gauzatzeko dirulaguntzak eman dira.

5. PROIEKTU NAGUSIAK

5.1. KIROL EREDUAREN INGURUKO GOGOETA BULTZATZEA | 5.2. EUSKADI GIZARTE AKTIBOAGOA IZAN DADIN LAN EGITEA | 5.3. KIROL KLUBEI ETA FEDERAZIOEI BURUZKO GOGOETA ERAGITEA | 5.4. GOI MAILAKO EUSKAL KIROLA INDARTZEA | 5.5. TOLERANTZIARIK EZ DOPINAREKIN | 5.6. KIROL JARDUERAREN ETA KIROLAREN SEKTOREAREN PROFESIONALITASUNA INDARTZEA | 5.7. BENETAKO BERTIDITASUNA LORTZEA | 5.8. KIROL EGOKITUARI AUKERA BERRIAK EMATEA | 5.9. GURE KIROL AUTOKTONOAK BABESTEIA | **5.10. KIROLEAN EUSKARARI BIDEAK IREKITZEA, BATEZ ERE GAZTEEN ARTEAN** | 5.11. EUSKAL SELEKZIOEN ETA KANPO PROIEKZIOAREN ALDEKO POLITIKA BULTZATZEA

5.10. Kirolean euskarari bideak irekitzea, batez ere gazteen artean

Jarduera fisikoa eta kirola prestakuntza-bide bat dira gazteentzat, eta, zehazki, gure hizkuntzan trebatzeko bide bat, hau da, gure gazteen artean euskara sustatzeko eta indartzeko tresna egokia.

